

Nafarroako Berdintasunaren aldeko Emakumeen Erakundeek eta Erakunde Feministen Koordinakundeko (COMFIN) emakume-elkarteak, berdintasun-politika publikoen defentsan.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Nafarroako auzo, herri eta hiri bakoitzetik ahotsa altxatzen dugu emakumeek hainbeste urtetan konkistatutako eskubideak ez direla opariak izan gogorarazteko: borroka kolektiboaren, asoziazionismoaren, feminismo antolatuaren eta berdintasuna eza patu gisa onartu ez zuten milaka emakumeren determinazioaren ondorio izan dira.

COMFIN osatzen dugun elkarteek urteak daramatzagu berdintasun erreal eta eraginkor baten alde lan egiten, emakumeen parte-hartze politikoa bultzatzen, laguntza-sareak ehuntzen, indarkeria bere modu guztietan salatzen — baita ekonomikoa eta sinbolikoa ere — eta politika publikoek genero-ikuspegia zeharka txerta dezaten eskatzen. Badakigu berdintasuna, baliabide nahikorik gabe, ebaluazio zorrotzik gabe eta borondate politiko iraunkorrik gabe, promesa hutsa dela.

Gaur argi diogu: berdintasuna ez da negoziagarria.

Kezkatu egiten gaitu jasaten jarraitzen ditugun egiturazko desberdintasunak minimizatzen edo ukatzen dituzten diskurtsoen aurrerapenak. Kezkatu egiten gaituzte aurrekontuak murrizteko, politika espezifikokoak diluitzeko edo feminismoak gizartea eraldatzeko motor gisa duen zilegitasuna zalantzan jartzeko saiakerak. Berdintasun politikak zalantzan jartzen direnean, emakumeek indarkeriatik libre bizitzeko, baldintza berdinetan parte hartzeko eta beren bizi proiektua diskriminaziorik gabe garatzeko duten eskubidea zalantzan jartzen da.

Atzera egiteko edozein ahaleginen aurrean, antolamenduz, sororitatez eta irmotasun demokratikoz erantzuten dugu. Berdintasun-plan bakoitza defendatuko dugu, indarkeria matxistari aurre egiteko baliabide bakoitza, lortutako partaidetza-gune bakoitza. Politika publiko ausartak eta eraldatzaileak eskatzen ditugu, emakumeen aniztasuna aintzat hartuko dutenak — landa-eremukoak eta hiri-eremukoak, gazteak eta adinekoak, migratzaileak, desgaitasunen bat dutenak — eta ez dutenak inor atzean utziko.

Ez gara konformatzen legeetan idatzitako berdintasun formalarekin. Benetako berdintasuna nahi dugu soldatetan, zainketetan, enplegu duinerako sarbidean, ordezkartza politikoan eta eguneroko bizitzan ere. Zaintzak onartu eta birbanatuko dituen gizartea nahi dugu, prekaritate feminizatua desagerraraziko duena eta indarkeriarik gabeko bizitzak bermatuko dituena.

Martxoaren 8an gure konpromisoa berresten dugu: erne jarraituko dugu, proposatzen jarraituko dugu, mobilizatzen jarraituko dugu. Berdintasuna demokraziaren zutabe bat delako. Emakumeen eskubideak giza eskubideak direlako. Feminismorik gabe ez dagoelako justizia sozialik.

Ezta atzerapausorik ere.

Berdintasun gehiago, demokrazia gehiago, feminismo gehiago.